

Maruriko liburutegiak ikasturtea agurtuko du bihar festa batekin

'Zer da zuretzat liburutegia?'. Galdera honi laster erantzungo diote Maruri-Jatabeko haurrek. Izan ere, bohar hitzordua dute udal liburutegian, arratsaldeko 17.30etan. Bertan Hormirudi polit bat egiteko aukera izango dute umeei, hau da, marrazkiekin mural handi bat egingo dute liburutegia apaintzeko. Udalak hilabetero antolatu du ekintza berezi bat liburutegian, irakurzaletasuna sustatzearren. Biharko ekitaldiak kurtsoari amaiera emango dio, irailera arte ez baitira mota honetako tailerrik zabalduko. Amaiera borobila emateko asmoz, haurrek bere irudimena askatuko dute eta paperean islatuko dute zein den bere ametsezko liburutegiaren ideia. Bere maisulanek liburutegiko hormak apainduko dituzte, hortaz ekitaldiaren izenburua, Hormirudia. Ekitaldi artistikoari 'egundoko askariak' jarraituko dio, udal arduradunek adierazi duten lez. Saioa euskaraz garatuko da eta, betiko lez, gurasoak eta senideak ere gonbidatuta daude 'bere haurrekin batera arratsalde atseginaz goatzera', diote aipatu iturriek. Laz antzeko ekimena proposatu zen, eta umeei mahai-zapi txikietan marraztu zuten. Helburua udan ere irakurri behar zela gogoraraztea izan zen.

Ebaluazioa

Ekitaldiaren alde ludikoaz gain, urtean zehar bultzatu diren tailer anitzen gainean ebaluazioa egitea ere bilatzen da. 'Partaideen iritzi orokorra jaso gura dugu eta bide batez, euren iradokizunen berri jasotzea ere bai', zehaztu dute egitasmo honen eragileek. Berebat, hurrengo astean gurasoei inkesta egiteko asmoa ere azaldu du Udalak, liburutegiko ekintzetan parte hartu dutenei emailez bidaliko zaiena. Udal liburutegiko programa hau irailean hasi zen, eta antolatzaileei jarraiki, ekintza arrakastatsuenak ipuin kontalarien saioak eta sukaldaritza tailerra izan dira, beste batzuen artean. Udaberri honetan, adibidez, haurrak liburutegitik atera ziren herritik loreak eta landareak biltzeko. Bildutako uztarekin liburutxo bat atondu zuten.

Oro har, programatutako ekintzek 'nahiko harrera ona' jaso dute, eta Udalaren asmoa da 'gero eta jende gehiago parte hartzera animatzea'. Ekintzak biharko arrastietan garatu badira ere, gerta liteke egunaz aldatzea etorkizunean. 'Zaila da familiekin koordinatzea, bai gurasoak lanarekin eta bai umeei eskolaz kanpoko ekintzekin zeharo lanpetuta daude eta', diote.

Laukiz

Bestetik, Laukizen ere liburutegiko programa bera garatzen da, eta bertako udal arduradunek baieztatzen dute 'oso erantzun ona' jasotzen duela ekimen bakoitzak, bai haurren eta bai gurasoen aldetik. Joan den ostiralean agur-festa ospatu zen, eta 20 ume inguruk parte hartu zuten liburutegia apaintzen, euren familiekin batera. Hasierako galderari erantzunez, Laukizkoek argi daukate: 'Gure liburutegia herriko topagunea bihurtu da, bertan elkartzen baikara eta ondo pasatzen dugu eta'.